

A29

Ceru çabala oy estali da içarrez...

Poema honek A testuko poemen *dispositio* berezia du eskuizkribuko orrialdeetan: bi zutabe, lehenengoa ezker-ezkerrean eta bigarrena eskuinerago. Baina, A testuko poemetan ez bezala, 1203v orrialdean hasten da, zati bat falta, eta, atzeraka eginez, 1200v orrialdean segitzen du, beti orriaren ifrentzuan.

Ziur aski poema luzea izateko pentsatua da, 19-20 bertso-lerroetan aitortzen duenaren arabera (*conta dezadan / Pasio Santua dolorez*) Jesusen nekaldi osoa kontatu behar baitzuen; poemaren lehenengo zatian (1-20 bertso-lerroak), hain zuzen, gaia iragartzen du. Gero, 21-68 bertso-lerroetan, Azken Afaria kontatzen du, eta poema etenik geratzen da orrialdea amaitzean. Izan ere, 69-114. bertso-lerroetakoa Jesusen atxilotzeari dagokio, eta, Pazko-afaritik atxilotzera bitartean, beste pasarte batzuk falta dira: ikasleen arteko eztabaida, Pedroren ukoen iragarpena, Oliamendiko otoitza eta Judasen musua. Gero ere, dirudienez, berriz eten da poema, pasioaren kontakizuna amaitu gabe geratu baita (gutxienez Pedrok Jesus ukatzea, Jesus Pilatoren aurrean eta gurutziltzatzea falta dira).

Pasartearen lehenengo iturria lau ebanjelioak diren arren, Lazarragaren kontakizunean agertzen diren xehetasun batzuek (adibidez, belarria moztu dioten gudariaren argiontziak) adierazten dute ebanjelioetatik eratorritako bigarren mailako tradizioa, ziur aski hala literarioa nola ikonografikoa, dituela hurbilagoko iturri; XV-XVI. mendeetako gaztelaniazko literaturan, Jesusen nekaldiari buruzko poema dramatikoak dira ezagunenak, baina poema narratiboak ere ugari dira.

Lazarragaren eskuizkribuko beste poema batean (A28) ere erabili da poema honetako eredu metrikoa: bakoitia 5 silabako librea, eta bikoitia 8 (batzuetan 7) silabakoa errima bokalikoarekin. Aipagarria da ahapaldi-egitura hau hautatu duen bietan landu dituela poema narratiboak.

<1203v> Ceru çabala
oy¹ estali da içarrez;
ene beguiac,
asi çatez negarrez;
ene bioça,
erdira² çatez dolorez:
Jerusalem

5

¹ *oy*: Eskuizkribuko poemetan maiz erabiltzen dira *oy* eta *oyta* betegarriak (bakanka *oy eta*), bertso-lerroen neurri egokia lortze aldera.

² *erdira*: ‘erdibitu, urratu’; cf. *OEH*, s.v.: “Documentado en todas las épocas y dialectos, excepto en vizcaíno. La mayor parte de los ejs. son de *bihotza erdiratu* ‘partir el corazón’”.

gaur bete da traidorez;	
Jaun Cerucoa	
an ey ³ dabil clamorez,	10
saldu dabela	
oy eta Judas traidorec. ⁴	
Asper ce çatez, ⁵	
jentea, negar eguitez!	
Icara jabilt	15
lau laurenoc ⁶ bildurrez.	
Arren, nançuçu, ⁷	
Jaun Cerucoaen amorez,	
conta deçadan	
Pasio Santua dolorez. ⁸	20

³ *ey*: ‘ei, omen’; partikula honen lehenengo lekukotasuna *Arrasateko Erreketan* aurkitzen da (*Madalanaan an ei dauça*, TAV 3.1.7, 83), baina XIX. mendera arte oso gutxi lekukotzen da, ziur aski testu motengatik (dotrinak, oitizak...). Cf. *OEH*, s.v.: “Documentado sólo en textos vizcaínos. Atestiguado ya en los Cantares de la quema de Mondragón, hasta la segunda mitad del s. XIX los ejemplos son, sin embargo, muy poco frecuentes”. Lazarragarenean bederatzi aldiz aurkitu dugu: A12: 2, A:12: 4, A23: 25, A24: 2 oh. pal., A27b: 5, A28: 2, A28: 10, A29: 10, A29: 24.

⁴ *Judas traidorec*: Artikulurik gabe ageri da izen berezi batez eta izenondo batez osatutako sintagma hau. Ergatibo mugagabearen adibideak badira testu zaharretan. Hemen, hala ere, aintzat hartu behar da *Judas traidore* sintagma osoa hartu ahal izan dela izen berezizat, beste mota bateko izenlaguna daramaten izen berezien kasuan bezala: cf. *Jaun Peru Abendañococ* (TAV 79-81).

⁵ *Asper ce çatez*: ‘ez zaitetz asper, ez zaitetz neka’; cf. Lcc “cansar, aspertu”.

⁶ *Icara jabilt* / *lau laurenoc*: Formula ezaguna da, batez ere balada zaharretan: cf. Peru Abendañokoren kanta (c. 1443; TAV 3.1.6.): *Jaun Peru Abendañokok esala: / Oñetako lurrau jabilt ikara, / Gorputzeko lau aragiok berala*, edo Martin Bañezen eresia (c. 1464; TAV 3.1.9): *Oñetaco lurrau jabilt icara, / Lau araguioc vere an verala, / Martin Bañes Ybarretan il dala*. Lazarragaren testuan badago honen beste oihartzun bat ere: *ene araguioc icara dabilz* (B3: 76).

⁷ *nançuçu*: ‘entzun nazazu(e)’; *entzun* aditzaren agintera trinkoa. Gisa horretako aginterazko forma trinkoak ez ziren ongi ezagutzen Lazarragaren testua agertu arte. Izan ere, historikoki, euskararen hizkera desberdinek egitura perifrastikoetara jotzen dute iragankorretako objektua 1. edo 2. pertsonakoa delarik. Cf. adibidez *Hiri cionat allaua, ençun neçan allauaiçuna* (Zalgize 131). Lazarragak, aldiz, forma trinkoak nasaiki erabiltzen ditu objektu mota hauekin ere: *nançuçu* (A10: 4), *erruqui nauca* (A16: 35, berorika), *naraçaçu* (A17: 48), *ce nafinçu* (A17: 60), *nacusu* (B21: 47). Arabarraren erabilera emankor horien ondoan, euskaraz ezagutzen den corpusean ez dugu beste bi aldiz baizik aurkitu objektua 1. pertsonakoa duen aginterazko forma trinkorik: bata *Arrasateko Erreketan* ([An]dra urena *Butroecoa nançuçu, Butr A,6*), eta bestea Oihenarten poesietan (*galdez nauzun horrez ukenduru negizu, Poes. XXIV, 5*).

⁸ *Arren, nançuçu, / ... / Pasio Santua dolorez*: Antzeko formula aurkitu dugu eskuizkribuko lau lekutan, ondoren datorren solasari adi izateko arreta eskatzen duen funtzio kataforikoan: *nançuçu, çaoz gueldiric* (A10: 4), *oy lenaengo abantajea / dasadan, çaoz exilic* (A14: 49-50), *Asi gura dot; / nançuçu, çaoz exilic* (A28: 39-40), *Arren, nançuçu, / Jaun Cerucoaen amorez, / conta deçadan / Pasio Santua dolorez* (A29: 17-20).

Eguaunari ⁹	
eguaun guren ¹⁰ esanic, ¹¹	
Ceruco Jauna	
jarri ey çan tristeric,	
oy leucala ¹²	25
asco pensamenturic	
biocean da ¹³	
dolorez amarguratic,	
cerren eucan ¹⁴	
Judasec gaxqui salduric,	30
judeguaquin ¹⁵	
aurraz berba eguinic,	
ogueta amar	
[]ar[] ¹⁶ aguinduric	

⁹ *Eguaunari*: ‘eguenari, ostegunari’; cf. Lcc “juebes, *eguauna*”; *OEH*ren arabera (s.v. *eguen*), Araban erabiltzen da (“V-ger [Alava]”). Mitxelena zehatzagoa da (1958: 43): “El nombre del “jueves” *eguauna*, aunque no está registrado por Azkue, se ha conservado en dos puntos de Álava (Cigoitia y Nafarrate), con artículo *eguaune*, según el “Triple cuestionario”. Frente al vizc. común *eguen*, hay también *eguun* en Munguía (*Euskera* 7, 52)”.

¹⁰ *eguaun guren*: ‘ostegun santu’.

¹¹ *esanic*: ‘deiturik’.

¹² *leucala*: ‘zeukalarik’; XVI. mendeko autore gehienek *l-* aurrizkidun hipotetikoko formak erabiltzen dituzte iraganeko edo hipotetikoko aditz nagusiek gobernatu mendeko konpletibo, denborazko, final, zirkunstantzialetan. Askotan forma hauek zeharkako estiloa markatzen dute: *erregutu eusan bere emazteari eugui leguiala contu andia Silverori bear ebena emaitiaz* (AL: 1142r), *Egun baten, bada, bere bideti joeala, topadu çan arçai bigaz, ceñai Silviac itaundu eusten nora lloacen* (AL: 1147r), *Ceruetaco Erregueari / oy dira encomendadu / suplicaetan liçatela / nay lequiela lagundu* (AL: 1154v), *Egun ascotan nic eguin nagon / modu ascotan erregua, / arren, osatu nenguiala / a liçan guero medicua. / Errespuesta emayten cidan / liçala nesca onestua, / ayta-amaac liqueoela / berebico afrontua* (A21: 5-12), *Baeguion ayteac erregutu / gau baten arren lagun leguiola, / cerren aseguin andi leyola* (B3: 31-33), *Ama emazte luyen ala ez nahi nuque galdatu* (Etx III, 17), *Fray Vicentec esala, Fedea cina liçala* (Fray 171). Azpimarratu behar da Lazarragaren testua agertu aitzin erabilera horren lekukotasunak biziki urriak zirela mendebaldeko testuetan.

¹³ *da*: ‘eta’.

¹⁴ *eucan*: ‘eduki zuen, izan zuen’; *edugi* aditzaren aoristo edo iraganaldi burutu zahar trinkoa.

¹⁵ *judeguaquin*: ‘juduekin’; cf. *OEH*, s.v. *judu*: “*Judegu* es propio de la tradición vizcaína, ya desde Capanaga y Micoleta; cf. infra *iudego* en la zona occidental de Navarra en el s. XIII. [*Çaldun iudego* (Zufia, 1283). GLarr SJ 510]”. Eskuizkribuan *judegu* aldaera hemen bakarrik agertzen da; gainerakoetan *judu* erabiltzen du: *juduaz* (A26: 124), *juduac* (A29: 91) eta *juduoc* (A29: 106).

¹⁶ *-ar-*: Hitzaren hasiera eta amaiera galdu dira, baina badakigu lau silaba behar ditugula, bertso-lerroaren egituraren arabera (kontuan izan, halere, hurrengo hitza bokalez hasten dela). Mateoren ebanjelioaren

entregaceco	35
Jesu Christo loturic.	
Traidore-asac ¹⁷	
ondo disimuladuric,	
afariori aurquietan	
baebilen solicatoric.	40
Aurquitu eta	
dey eguin deuso umilic,	
umilic eta ¹⁸	
lisonja ascoz beteric.	
Joan çan Jauna	45
dicipulooc arturic	
afaritan, ¹⁹	
maia bedeycaturic,	
nun ²⁰ esan eusten ²¹	
guztiay berba jaguinic: ²²	50

arabera (Mt 26, 15), Judasi “zilarrezko hogeita hamar txanpon” agindu zizkieten (*Vulgata*ren arabera, *triginta argenteos*; Leizarragarenean *hogeï eta hamar diru peza*; Duvoisinenean *hogoi eta hamar zilharrezko*).

¹⁷ *Traidore-asac*: ‘traidore-hatsak, traidore-kiratsa’.

¹⁸ *umilic*, / *umilic eta*: Ahozko literaturan sarri agertzen da anadiplosia: testu-zati baten azken zatia hurrengoaren hasieran errepikatzea eta kateatzea); *bihurkia* deitu zion Manuel Lekuonak ahozko euskal literatura aztertzean. Testuan behin baino gehiagotan agertzen da baliabide hori: *ene laztanac guraric*, / *ene laztanac guraric eta* / *neurc ala trabajaduric* (A14: 10-12), *Erregue baleu enojadu*, / *enojadu ta* / *asco maneraz afrontadu* (A26: 2-4), *Amea baleu ayn onradu*, / *onrada eta* / *bere semeaz concertaedu* (A26: 14-16), *cerren ecusten* / *even guztia galduric*, / *galduric eta* / *suorrec abrasaduric* (A28: 91-94), *Aurquitu eta* / *dey eguin deuso umilic*, / *umilic eta* / *lisonja ascoz beteric* (A29: 41-44).

¹⁹ *afaritan*: ‘afaltzen, afaltzera’.

²⁰ *nun*: ‘eta orduan’; hemen *nun* erlatiboa da, aurreko garbirik ez duen arren. Honen antzekoa da 63. bertso-lerrokoa; han are nabarmenagoa da aurrekorik ez duela.

²¹ *eusten*: ‘zien’.

²² *guztiay berba jaguinic*: ‘guztiei berba eginik’; *jagui*- hainbat aldiz agertzen zaigu eskuizkribuan. Askotan aditz trinkoa edo beregaina da, baina laguntzaile gisa ere agertzen zaigu, partizipioa aditz nagusizat harturik. Bestalde, gehienetan aditz jokatu gabea iduri du: *Jri remedio emun jagui!* (AL: 1138r), *Nachaçu suplicaetan nay daquiçula, ene peneau oneyn andia dan azquero, remedioa emun jaguiten* (AL: 1152r), *eta prometidu even biac ez alcarri ichi jaguiteco, arean da Sirena ta Silvia idoro artean* (AL: 1152v), *cegaiti artu ez daiquean / oy beste servidoreric*; / *oy alcançadu daiqueano / ez artu jaguin celoric* (A14: 99-102), *Orain dama bat servietan dot, / lindea parebaguea*; / *oy eztauco meresciduric / niganic ancietea / eguin deustan mesedeac / servidu jaguin artean* (A24: 131-136), *Jaun Cerucoac / çuri bidaldu jaguinic*; / *adietaco / badeçu miramenturic*, / *ez consentidu / ceure lurrean gaxtoric* (A28: 165-170), *Aren aoti berba oa / neguianean aditu, / reberencia jaguiteco / belaunoc neben incadu* (B12: 13-16), *Apea nindin çaldirean*; / *guchi bat apartaduric / berba neguion lurrerean*, /

—Eben ²³ dago	
ni naucana salduric—.	
Erançun even	
guztiac espantaduric: ²⁴	
—Benturaetan, ²⁵	55
ez al nax, ²⁶ bada, jauna, ni!	
—Neuronec baquit; ²⁷	
arren, extaçü ²⁸ exilic—.	
Jagui cidin ²⁹	
afaritarean ³⁰ tristeric;	60
guztiay oñac garbitu eusten ³¹	
bercheac, ³² umilladuric,	
nun esan eusten	

neurau nengoan lecurean / reberencia jaguinic (B16: 66-70), *Beti nabil caso au dala / trabajadua azquero, / inox dicharic eztudala / bencedoreçat atabala / jo jaguiteco sendoro* (B16: 111-115), *guztiay berba jaguinic* (A29: 50), *modu onetan / oyta berba jaguinic* (A29: 79-80). Edozein kasutan, beti agertzen da iragankor gisa eta datibozko argumentu batekin. Uste dugu aditz ezezagun horren azpian *egin* aditzaren forma hirupertsonala (NORK-NORI-NOR) ezkututzen dela.

²³ *Eben*: ‘hemen’.

²⁴ *espantaduric*: ‘harriturik, miraz gelditurik’; cf. *DAut*, s.v. *espantarse*: “asombrarse”.

²⁵ *Benturaetan*: ‘menturaz, beharbada’.

²⁶ *ez al nax*: ‘oxala ez banaiz’; *al* botiboa da.

²⁷ *baquit*: ‘badakit’; eskuizkribuan ez dago behin ere *badaquit* forma osoa, horren kontrakzioz sorturiko *baquit* baino, lau aldiz (A12: 15, A17: 32, B5: 91, A29: 57).

²⁸ *extaçü*: ‘utzidazu(e)’; *etxi* (*etxi* / *itxi* formari buruz, ikusi beherago A29: 66ko oharra) aditzaren NOR-NORI-NORK agintera trinkoa. Eskuizkribuan, *ichi* / *echi* ‘utzi, abandonatu’ aditzak beti hartzen du osagarria datiboan: *bigueleari ichita* (AL: 1141v), *destenpleac ichi eguion* (AL: 1143r), *ai ichita* (AL: 1144v), *erriari ichiric* (AL: 1147v), *Clariani bacarric ichita* (AL: 1151r), *niri bacarric ichiric* (AL: 1151v), *ecin ichi neidiçu* (AL: 1151v), *nic ichico eçteuçut* (AL: 1151v), *ichi eguiöçu orreyn cureldo trataetan çabenorri* (AL: 1152r), *ez alcarri ichi jaguiteco* (AL: 1153r), *Sirenari eta Silviari ichiric* (AL: 1154v), *ichi neusan* (A7: 117), *extaçü exilic* (A29: 58), *guztai ala echiric* (A29: 66).

²⁹ *Jagui cidin*: ‘jaiki zen’; aoristo edo iraganaldi burutu zaharra.

³⁰ *afaritarean*: ‘afaritatik, afaltzetik’, mugagabea.

³¹ *eusten*: ‘zi(zki)en’.

³² *bercheac*: ‘berberak’; *berak*-en forma indartua da. Lazarragaren eskuizkribuan, *-xe* atzizkiak hiru balio hartzen ditu: **1)** Txikigarria (*-xe* = *-txo*), kutsu afektiboarekin (mespretxua, trufa...) nahiz gabe: *bervaxe* (A7: 117), *daquidancheau* (A10: 21), *gauçaxe* (A10: 23), *presentexeac* (A14: 69), *çuzpirioxe* (A14: 73), *esecoxeoc* (A19: 14), *urtexe* (A19: 16), *dozenaxe* (A24: 116), *erreguxeau* (A26: 31), *bobedaxeoc* (A28: 59), *conquistaxeau* (B11: 13 oh. pal.) eta beharbada *Peru Errochec* (A27: 31; ik. lerro horretako oharra). **2)** Izenondo eta aditzondoan intentsitate markatzailea: *gueldixe* (AL: 1140v), *goitixeago* (A1: 23), *claruxeago* (A7: 49), *gueixeago* (A10: 59). **3)** Indartzailea (izenordain indartuekin, eta *eben* / *arean*-ekin): *bercheac* (A7: 77, A29: 62), *gueurcheoc* (A7: 88), *neurcheau* (A10: 46), *ebenche* (B3: 42), *areanche* (A27a: 33). Kasu batean (*urteje* A14: 6), ez dakigu zehazki zein den balioa.

	asco palabra dulceric.	
	Guero joan çan,	65
	guztiay ala echiric, ³³	
	amabietan	
	oyta escojiduric	
<1200v>	[...]	
	bere maquesa ³⁴	
	atera dau çorroçic,	70
	ebagui deuso	
	belaarria ³⁵ bateric ³⁶	
	lanternea ³⁷	
	escuan eroeanari. ³⁸	
	Orduan Jaunac,	75
	umildadez beteric,	
	aguindu eusan	
	ez lemala ³⁹ besteric,	

³³ *echiric*: ‘utzirik’; Lazarragak *itxi* forma erabiltzen du gehien, eta hiru bider bakarrik aurkitu dugu *etxi*: *echi* (B16: 105), *extaçü* (A29: 58), *echiric* (A29: 66). Cf. Lcc “dexar, *echi*, *uzzi*”, bigarrena (*uzzi*) B eskuak erantsita.

³⁴ *maquesa*: ‘aihotza, matxetea’; txistukari afrikatua irakurri behar da (*maketsa*). Cf. *OEH*, s.v. *makets*: “**makets** (V-ple-arrig; Dgs-Lar 5), **maketz** (V-m-gip), **maketx** (V-ple; Zam *Voc*), **makatz** (V-m). Ref.: A (*makets*, *maketx*, *makatz*); *AEF* 1927, 99; Onaind *EEs* 1931, 55; Iz *ArOñ* (*maketz*)”.

³⁵ *belaarria*: *OEH*ren arabera, bokal bikoitzeko *belaarri* forma Oñatin aurki daiteke; mogeldarrek (osabailobek) eta Fray Bartolomek ere badarabilte forma hau. A29 poeman aurkitu ditugu eskuizkribuko *belaarri* guztiak; bokal bakarrekoa (*belarri*), bestalde, behin bildu dugu eskuizkribuan: *Belarrioc ireaçü eta dançuçun* (A17: 8).

³⁶ *bateric*: ‘kolpe batez’.

³⁷ *lanternea*: ‘argiontzia’; cf. Lcc “lanterna, *lanternea*”. Gaztelaniaz *lanterna* eta *linterna* erabili ziren XVII. mendera arte, eta 1650az geroztik soilik *linterna*.

³⁸ *eroeanari*: ‘zeramanari’; Mendebaldeko testu zaharretan, deklinabide mugatuan bezala, *a + a > -ea* disimilazioa gertatzen da adizki jokatueta ere, *-an / -ala* atzizkiak gehitzean: *doa + -an > doean* (*RS*), *daroa + -an > daroanean* (*VJ*) (cf. *FHV* 115). Hona Lazarragaren eskuizkribuan bildu ditugun adibideak: *joean* (AL: 1138v, B30: 6), *cirean* (AL: 1142v, AL: 1144r, AL: 1146v, AL: 1152r, AL: 1153v, A11: 13, A11: 17, A26: 120, A28: 100), *direan* (AL: 1147v, AL: 1152r, A1: 15, B15: 62), *çarean* (AL: 1152v, A12: 16, A17: 111, B3: 65, B16: 31, B16: 44), *guinean* (A7: 8, B16: 86), *cinean* (A26: 94, A26: 156), *nerocean* (B16: 14), *cireala* (AL: 1145r), *joeala* (AL: 1147r), *çareala* (AL: 1151r), *direala* (AL: 1152r), *neroeala* (B16: 16), *eroeanari* (A29: 74), eta *-ea- > -ia-* aldaketarekin *dirian* (B28: 15). Ohar gaitezen Landuccik aditz gutxi dakarrela eta zaila dela gertakizun honi buruzko ondoriorik ateratzea, baina bada adibide bat behintzat iradokitzen duena Landuccirenean ez bide dela halakorik gertatzen (“antecedente, *aurrera doana*”).

³⁹ *ez lemala*: ‘ez ziezaziola eman’; *eman* aditzaren NOR-NORI-NORK subjuntibo trinkoa. Hasierako *l-* dela eta, ik. 25. bertso-lerroko oharra.

modu onetan	
oyta berba jaguinic: ⁴⁰	80
—Sar eçac, Peru,	
gabineteoy ⁴¹ gueldiric	
bere lecuan.	
Ce eguic ⁴² beste gauçaric.	
Armaz inor il daguianac ⁴³	85
armaz il bearco dic—.	
Jandone Periac ⁴⁴	
ez eguian ⁴⁵ besteric;	
sartu eguian	
gabinetea exilic.	90
Juduac, barriz,	
asco eucan negarric, ⁴⁶	

⁴⁰ *berba jaguinic*: ‘hari berba eginik’; *jagui*- hainbat aldiz agertzen zaigu eskuizkribuan. Askotan aditz trinkoa edo beregaina da, baina laguntzaile gisa ere agertzen zaigu, partizipioa aditz nagusizat harturik. Bestalde, gehienetan aditz jokatugabea iduri du: *Jri remedio emun jagui* (AL: 1138r), *Nachaçu suplicaetan nay daquiçula, ene peneau oneyn andia dan azquero, remedioa emun jaguiten* (AL: 1152r), *eta prometidu even biac ez alcarri ichi jaguiteco, arean da Sirena ta Silvia idoro artean* (AL: 1152v), *cegaiti artu ez daiquean / oy beste servidoreric; / oy alcançadu daiqueano / ez artu jaguin celoric* (A14: 99-102), *Orain dama bat servietan dot, / lindea parebaguea; / oy eztauco meresciduric / niganic ancietea / eguin deustan mesedeac / servidu jaguin artean* (A24: 131-136), *Jaun Cerucoac / çuri bidaldu jaguinic; / adietaco / badeçu miramenturic, / ez consentidu / ceure lurrean gaxtoric* (A28: 165-170), *Aren aoti berba oa / neguianean aditu, / reberencia jaguiteco / belacunoc neben incadu* (B12: 13-16), *Apea nindin çaldirean; / guchi bat apartaduric / berba neguion lurrerean, / neurau nengoan lecrean / reberencia jaguinic* (B16: 66-70), *Beti nabil caso au dala / trabajadua azquero, / inox dicharic eztudala / bencedoreçat atabala / jo jaguiteco sendoro* (B16: 111-115), *guztiay berba jaguinic* (A29: 50), *modu onetan / oyta berba jaguinic* (A29: 79-80). Edozein kasutan, beti agertzen da iragankor gisa eta datibozko argumentu batekin. Uste dugu aditz ezezagun horren azpian *egin* aditzaren forma hirupertsonala (NOR-NORI-NORK) ezkatzen dela.

⁴¹ *gabineteoy*: ‘ganibet hori, hire ganibeta’; oinarritzko forma *gabinete* da, ziur aski Landuccirenean bezala: “cabo de cuchillo, *gauineteã ondoa*”, “filo de cuchillo, *gauinetean filoa*” eta “mango de cuchillo, *gauinetean ondoa*”.

⁴² *Ce eguic*: ‘ez ezak egin’; *egin* aditzaren agintera trinkoa.

⁴³ *il daguianac*: ‘hil dezanak, hilgo duenak’.

⁴⁴ *Jandone Periac*: ‘San Pedrok’; izen berezi zenbaitek artikulua hartu izan du, mendebal-erdialdeko tradizioan, nagusiki. Erlizko izenekin gertatzen dela dirudi, santu eta abarrenekin (*Jesusa, Frantziskua, Satanasa...*). Lazarragarengandik hurbil, garaiz zein lurraldez, Betolatza aipa daiteke (*Jandone Periac...*). Eskuizkribuan bitan ditugu halakoak: honako hau eta *San Franciscuan* (A21: 34). Honi dagokion forma artikulua gabea *Peri* litzateke (cf. *Pericho* A13: 2), baina eskuizkribuan *Peru* ere agertzen da (A27: 31, A29: 81).

⁴⁵ *ez eguian*: ‘ez zuen egin’; *egin* aditzaren aoristo edo iraganaldi burutu zahar trinkoa.

⁴⁶ *asco eucan negarric*: ‘negar asko zeukan’; *-rik asko* egitura da.

cerren eusan	
belaarria ebagui.	
Jaun Cerucoac,	95
umildadez beteric,	
belaarria	
efini deuso osoric.	
Oec guztioç	
ortuan iragaroric, ⁴⁷	100
eroan even	
Christo bera loturic.	
Jerusalemen	
sartu da arrastraduric.	
Asco daroae	105
juduoc alariduric, ⁴⁸	
jayten ⁴⁹ davela	
asco tronpeta garracic, ⁵⁰	
euren bioçac	
contentamentuz beteric.	110
Traidoreac chu eguiten	
deusae losabagueric,	
bay gueiago ⁵¹	
ostean ⁵² asco burlaric.	

⁴⁷ *iragaroric*: ‘igarorik, gertaturik’; berez *igaro*-ren kausatiboa da. *OEHk* ez dakar.

⁴⁸ *Asco daroae / juduoc alariduric*: ‘juduek alarau asko jaulkitzen dute’; *-rik asko* egitura da. Gaztelaniaz adibide bakarra aurkitu dugu *CORDEn*, XVI. mendean, *llevar alaridos* lokuzioarekin: “Y despertándolo los grandes gritos y alaridos que llevábamos” (Diego Ortúñez de Calahorra, 1555, *Espejo de príncipes y caballeros*).

⁴⁹ *jayten*: ‘jotzen’.

⁵⁰ *asco tronpeta garracic*: ‘tronpeta garratz asko, tronpeta durunditsu asko’; *-rik asko* egitura da. Cf. *OEH*, s.v. *garratz*: “(Aplicado a sonidos). Fuerte, estridente, áspero, desagradable”.

⁵¹ *bay gueiago*: ‘baita ere’; bi aldiz dago eskuizkribuan: A28: 113 eta A29: 113. Honen antzera, ikusi ez *gueiago*.

⁵² *ostean*: ‘horren ondoren, horrez gain’.

OHAR PALEOGRAFIKOAK:

1203v Orrialdeko bi zutabe hartzen ditu, testu nagusiaren lekuan. **1** çabala] esk. *cabala*. **4** negarrez] esk. *negarez*. **16** bildurrez] esk. *bildurez*. **20** dolorez] ondoren lerroarte zabala dago. **1200v** Testu nagusiaren lekuan dago, baina aurreko orrian (1199v) esku berak egin duena baino ezkerretarago hasten da bigarren zutabea, eta 10. lerroan amaitzen (bukatu gabe, ziur aski), ustez jarraitzeko lekua zeukan arren, ondoren datorrena (B23) geroago idatzia dela baitirudi. **34** -ar-] hitzaren hasiera eta amaiera ez dira irakurtzen, orri-barrena higatuta eta moztuta dagoelako. **72** belaarria] esk. *belaarria*. **74** eroeanari] -e- ez da ondo irakurtzen, ziurrenik beste letra baten gainean idatzi delako. **78** lemala] -l- beste letra baten gainean idatzi da, itxuraz -n- letraren gainean (hots, *leman* > *lemala* bihurtuta). **85** Armaz] aurrean *gab* edo, tatxaturik. || daguiac] esk. *daguiac*. **91** barriz] esk. *bariz*. **94** belaarria] esk. *belaarria*.

Nola aipatu testu hau:

Lazarraga, Juan Perez, 2012 [c. 1602], “A29 – Ceru çabala oy estali da içarrez...” [PDF], in G. Bilbao et al. (arg.), *Lazarraga eskuizkribua: edizioa eta azterketa (2.0)*, Vitoria-Gasteiz: UPV/EHU. Interneten eskuragarri: <<http://www.lazarraga.com>> [Kontsulta: uuuu/hh/ee].



Lan hau [Creative Commons-en baimen baten mende](https://creativecommons.org/licenses/by-sa/4.0/) dago